

Aretxagazeta



SANMIGELAK02

Ondo pasau San Migel jaiak!



MEMESA

INDUSTRIA HORNIDURAK

Tel.: 943 71 24 25 / Faxe: 943 71 22 98
ARETXABALETA · ARRASATE · OÑATI

- Erakusketak
- Antzerki, zine eta musika-zikloak
- Liburuen argitalpena
- Kanpaina desberdinen eragiketa
- Erakusketa eta ikus-entzunezko materialen alokairua

KULTURGAIAK

HURBIL

KULTURA ZERBITZUAK


HURBIL KULTURGAIAK, S.L.
Arkarazo auzoa • Bikarixuena baserria • p.k. 160
20550 ARETXABALETA

tel.: 943.71.42.08 • faxe: 943.71.47.08
e-posta: hurbil-kultur@teleline.es

ATREBENTZIAEZPADA/ Gustoko ditzuzu San Migelak? Ze gustetan jatzu gehixen?




LUCIA ELORTONDO
jubilaue



LORENZO VICENTE
langillie



MARIA LARRAÑAGA
jubilaue



JULIO GANADO
langillie



JESUS MARI BENGOA
jubilaue



ISABEL MAGALLANES
langillie

Festak politte izeten die. Zapatuko ferixan ambiente ona egoten da. Nik ez dauket ezer apartetako. San Migeletan dana izeten da politte. Ez naz baserritar jazten, hori gaztiendako da.

Bai, San Migelak gustoko ditud. Zapatua izeten da gehixen gustetan jaten eguna. Aurten, baserritar janztekotan nabil, baiñe ez dot 47 zenbakiko abarkarik topetan.

San Migeletan kalera urtegen dot, etxien egotie baiño gehixago, gurago dot jaxetan ibiltie. Zapatuen ez naz baserritar janzten, hori gaztiendako da. Zapatuko ferixie gustetan jat.

Bai, gustoko ditud San Migelak, baiñe lan egitten dot eta ez dauket jaixetan ibiltteko aukera haundirik. Hala eta be, kuadrillako danak alkartzen garen jai bakarrak izeten die.

Normalien, kanpuen egoten naz, baiñe fan dan urtien hamen egon nintzen eta oso ondo pasau neuen. Aurten, domekan kanpora fango gare. Zapatuko ferixie, behintzet, ikusiko dot.

San Migelak gabez bizi izeten ditud; gabeko katu izeten naz. Egunez oso gutxi disfrutetan ditud jaixek; hortan, baserritar be ez naz sekula janzten. Hala eta be, jai politte izeten die.

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 28
FRAILE, J. Herriko plaza, 10. 943 79 21 99
DOMEKA, 29
FRAILE, J. Herriko plaza, 10. 943 79 85 83

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE
PARROKIA
Domeketan: 12:00
Zapatuetan: 19:30

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatutan: 8:00
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN:
AREANTZAN
Domeketan: 12:30

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GALARTZA
Domeketan: 12:30

OHARRAK


ESKULAN IKASTAROA

Urriaren 8an, Eskulan ikastaroa hasiko da. Bedertzi eskola emango dituzte (astean behin) ikastaro horretan. Izena emateko kultura etxera joan behar da, 11:00etatik 13:00etara bitartean. Eskulan ikastaroa egiteko 20 euro ordaindu beharko dira.

OKILA IKASTAROA

Okila taila elkarteak tailan ikaŝteko hastapeneko ikastaroa antolatu du. Eskolak urriaren leian hasiko dira, eta 18:00etatik 20:00etara bitartean emango dituzte. Ikastaroak 60 ordu iraungo du. Izenematea eta informazio gehiago Okila elkartearen, Murubide kaleko 5. zenbakian.

IRUDIA



Beti jarri duzu zure esku egon den guztia herriari laguntzeagatik. Gaitza da lan guztiak aipatzea. Ez dugu ahaztuko zuk eta zure idiek egindako lana. Olentzerok eta umeek ere eskertu gura dizute urtero urtero euren nahiak betetzen lagundu izana. Zure idiek tiratutako gurdian erregaluak eta erregaluak eraman izan dizkie Olentzerok gure umei. Gogoan dauzkagu lehen San Migel haiek ere, zure idien laguntzarekin nobixa-nobixuen arrioa herriari erakutsi genion hura!

Laguntza behar izan dugun guztietan, hor izan zaitugu, aretxabaletarroi laguntzeko prest. Mila esker, Antonio!

OPEL


Vectra GTS berria:
gizakiaren eta makinaren arteko hartu-eman onena.

ONDO PASA SAN MIGELAK!

GARAJE NORTE S.L.

Basabe bidea A 1-3 ARETXABAETA
943 71 20 03 Faxa: 943 77 16 20

Garaje Norten autoaren konponketa finantzatzen dizugu sei hilabetera, eta kostu gehigarri barik. **INFORMA ZAITEZ.**



Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABAETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagola Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
4.100 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



Eusko Jauriritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

EGITARAUA

JAIETAKO EGITARAUA

Egubakoitza 27

- 18:00 Aurtengo San Migel jaietako hasiera emateko, txupinazoa eta bonba japoniarak, herriko plazan.
- 19:00 Aretxabaletako plataformak antolatuta, *Euskal presoak Euskal Herrira* lelopean kale agerraldia, herriko plazan.
- 19:30 Buruhandien kalejira, Aretxabaletako txistulariek lagunduta.
- 20:00 Karkar taldearekin kale animazioa.

Zapatua 28

- 10:30 Diana, herriko txistulariekin.
- 11:00 Txalaparta, Durana kalean.
- 11:30 Trikitilarietako herriko kaleak alaituko dituzte.
- 12:30 Salda, Durana kalean.
- 13:00 Maialen Lujanbio eta Sebastian Lizaso bertsolariak.

14:30 *Euskal presoak etxera, faxismoari stop!* lelopean herri bazkaria Iturrigorri frontoian. Bazkalostean, asto lasterketa, Durana kalean.

17:00 Hala Gera gaitarietako Herriko kaleak alaituko dituzte.

19:00 Ohiturari jarraituz, Beinke-Loramendi dantza egingo dute, herriko plazan, Musika Eskolaren eta Loramendi dantza taldearen laguntzarekin. Antonio Zuazua *Egilor-i* omenaldia.

20:00 Larrin dantza, Durana kalean.

23:00 X. San Migel Bolo Txapelketa. Izen-ematea: 6 euro. Sariak: lehena, 90 euro; bigarrena, 60 euro; hirugarrena, 50 euro; laugarrena, 40 euro; bosgarrena, 30 euro.

- Horrez gain, 11:00etatik 20:00etara bitartean, artisau feria eta VII. azoka ekologikoa izango dira, Durana kalean eta herriko plazan.

- Jarri Ikurrina zuen balkoi edo leihoetan eta irten kalera baserritar jantzita!



TXALAPARTAREN SOINUAREKIN EMANGO DIOTE HASIERA ZAPATU GOIZARI

Domeka 29

10:00 Durana kalean, Gazteentzako *Udazkeneko Kriteriumaren* hasiera. (Bukaera 11:30ean Mendiola auzoan.)

13:00 Herri kirolak. Pentaklon proba. Partehartzaileak: Juan Jose Unanue (Goenatxo), Elozukorta, Hernesto Espeleta (Bihurri), Nemesio Arregi, Jose Ignacio Flores (Gurdia), Jose M^a Esnaola (motozerraz aulkia) Aurkezlea: Ziriako.

16:00 Erloju kontrako lasterketa.

16:30 X. San Migel Mus Txapelketa. Garaikurrak, txapelak, eta dirua emango zaie lehenengo sailkatuei. Izen-ematea: 15 euro. (15:15etik 15:45 era).

16:30 Aretxartek antolatuta haurrentzako parkeak, Iturrigorri frontoian

18:00 Durana kalean txirrindulari probaren helmuga.

20:30 Kepa Junkeraren kontzertua Herriko plazan.


Errekabarren merkataritza etxea.

Guztia bertan. Guztia Errekabarren kalean.

ONDO IBILI
SAN MIGELETAN!



MARI KARMEN
ZAPATA-KONPONKETA DENDA
943 79 59 85



IRUDI
ILE APAINDEGIA
943 79 80 90



MIREIA
ARRANDEGIA
943 79 31 59



LEINTZ-ROSI
MERTZERIA
943 79 78 63



ERREKABARREN
FRUTATEGIA
943 79 96 43

Lubia
oinetakoak



zapatak, zapatilak,
gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00
ARETXABALETA
Biteri 1 • 943 79 66 53
ARRASATE

ANA'S
jantxidenda


Iparragirre 4.
Aretxabaleta

TXIMAK

- Ile apaindegi mistoa
- Estetika
- Depilazioa argizari epelarekin

Herriko plaza 5.
ARETXABALETA.
Tel.: 943 79 83 64





EGUZKIGRAF
inprimategia

Udan faltan bota dugun
eguzkiak,
berotu ditzala San Migel jaiak

ondo pasau eta
ahal dena gastau!!

Industrialdea F-0-4. Araba Ibilbidea. Aretxabaleta. Tfnoa. 943 791844. Faxe 943 792941. E-mail: info@eguzkigraf.com

J A N T Z I D E N D A

LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55



ETXE APAINKETA

EGUBAKOITZA

EPEH-RA PLATAFORMAK KALE AGERRALDIA EGINGO DU JAIETAN

Euskal Presoak Euskal Herrira Plataformak irekiko du jaia

Gaur arratsaldean kale agerraldia izango da, Durana kalean, 'Euskal presoak Euskal Herrira' lelopean

AMAGOIA LASAGABASTER

Gaur, egubakoitza, etxafuego eta bonba japoniar hotsek iragarriko dute jaien hasiera. EPEHra Plataformak, bestetik, jaietan gurekin izango ez direnak gogoraraziko dituzte.


Jaietan bereziki sumatzen ditugu faltan gurekin ez daudenak. Horregatik, Euskal Presoak Euskal Herrira Plataformako lagunek festa egun hauetan presoak etxeratzeke aldarrikapena inoiz baino ozenago egin gura dute.

KALE AGERRALDIA

Egubakoitzetan kale agerraldia egiten du Euskal Presoak Euskal Herrira

Plataformak. Datorren hitzordua gaur, egubakoitza, izango da, festen hasierarekin batera. Arrazoi horregatik, oraingoan, EPEHra Plataformako lagunek deialdi berezia egin diete herritar guztiei kale agerraldian parte har dezaten.

Kale agerraldien helburua da euskal preso politiko guztiak etxetik gertu egoteko duten eskubidea aldarrikatzea. Egoera latz horretan Kepa Urrea dago, besteak beste, eta jaietan, bereziki, hura izango dute gogoan. Kepak 10 urte daramatza kartzelarik kartzela, etxetik urruti. Eta hori gogorarazteko egin zuten garai baten bolatoki gaineko marrazkia. Azkenaldian, hondaturik zegoen, eta aste honetan zaharberitu egin dute, gainera.



Bolatoki gainean lehenik zegoen Kepa Urraren marrazkiari, '10 urte kartzelan...bizitza oso borrokan' leloa gaineratu diote.



Gemes

edertze aretoa

Durana 40 ARETXABALETA
943 79 99 18

ONDO PASAU
SAN MIGELAKI!

Depilazio elektrikoa: patilak, bigotea, okotza • Depilazioa: argizari beroa eta hotza • Dekolorazioa • Behin betirako makilajea bekain eta ezpainetan
Eguneko makilajea: ezkontzak, ezkongaiak... • Azalaren garbiketa osoa: adinaren eta zimurren aurkakoa, hidratazioa, aknea, shock (lifting-a)
Ordezko azazkalak, natural-naturalak manikura eta aplikazioa • Pedikura • Dieta pertsonalizatuak • Betileen tindaketa • Solarium zerbitzua ere badaukagu

ZAPATUA

ARTISAU FERIA ETA NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN VIII. AZOKA

Artisau feria eta azoka ekologikoa ikusgai

Zapatuan, taloak, sagardoa, bertsoak eta, batez ere, azoka izango dira eguneko protagonista

AMAGOIA LASAGABASTER

Zapatua izango da, beste behin ere, San Migel jaietako egun handia. Goizean goizetik baseritar jantzitako herritarrek girotu dituzte kaleak. Ikusmin handiena artisautza feriak eta azoka ekologikoak piztuko dute.

Txalaparta doinuek iragarriko dituzte zapatuko artisau feria eta azoka ekologikoa. Gerora, festa giroan are eta gehiago murgiltzeko, trikitilariak herriko kaleak alaituko dituzte. Duda barik, zapatuan, euskal giroa izango da nagusi!

ARTISAUAK ETA NEKAZARIAK
Goizeko hamaiketan, herri-



Herriko plazan artisau feria egongo da ikusgai eta Durana kalean nekazaritza ekologikoaren azoka jarriko dute.

ko plazan, handik eta hemendik etorritako artisauak elkartuko dira. Kupe-lak, artilezko galtzerdiak, zurezko lanak, zeramikazko artelanak... Denetarik artisau produktuak izango

dira ikusgai herriko plazan. Durana kalean, aldiz, nekazaritza ekologikoareh VIII. azoka jarriko dute.

Aurten, 20 nekazari postu izango dira herrian. Horietatik 16k euren pro-

duktuak salgai jarriko dituzte; gainerakoek erakusketa egingo dute.

Zapatuan, Biolur elkar-tearen laguntzari esker, gipuzkoarrez gain, Iparraldetik eta Nafarroatik

etorritako nekazariak ere izango dira herrian. Eta, zelan ez, betiko moduan, Aretxabaletako ordezkari bat ere izango da azokan: Jose Lombidek ortuko barazkiak ekarriko ditu.

Fitness Zerbitzua

- > Kalitate goreneko materialea (Bihotz taupaden kontrolerako sistemarekin CPR)
- > Monitore kualifikatuak momentu guztietan
- > Banakako programak
- > Ariketa taula digitalizatuak
- > Programa bereziak: Pisua jeistekoak, haurdunaldi ostekoak, Behobia-Donostia gertatzeko...

Talde bereziak

- > Gimnasia Terapeutikoa
- > Tai-Chi
- > Aikido
- > Aerobik txiki / Aerobik gazte
- > 3. Adineko gimnasia

Taldeko saioak: Aukera askeko ordutegi, eguna eta ekintza

- > Tonifikazio saioak
- > Gantza kentzeko saioak
- > Indarreko saioak
- > Luzapenerako saioak

Azterketa fisiko-medikuak eta aldizkako kontrolak
Ordutegi jarraia (8:00tik 21:30era)

Dietista Zerbitzua

Urteko Kuotarik gabe

Sauna dohain

Fisioterapia / masaje zerbitzua

Solarium bertikala

Zentrutik kanpoko ekintza ugari:
balnearioak, ski irteerak...

Matrikula zaitez!



Zainduz

Ilargi Plaza, 6 behea
Tel. 943 71 27 92
20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)

e-mail: zainduz@euskalnet.net



ELKARRIZKETA ANTONIO ZUAZUA SAN MIGEL JAIETAKO OMENDUA

“Nor bait akordatu da nitaz, eta hori eskertu beharra daukat”

AMAGOIA LASAGABASTER

Itzalean edo bigarren ilaran egotea gustatzen zaio Egilleor baserriko Antonio Zuazuri. Hala ere, San Migel jaietan herriko plaza erdi-erdian egon beharko du. Hantxe eskainiko diote, oraingo zapatuan, ondo merezitako omenaldia.

Zelan hartu zenuen omenaldiaren albistea?

Bueno, egia esan, niri gauza horiek ez zaizkit askorik gustatzen; bazterretik ibiltzea gurago dut. Baina, dena dela, poz handia eman dit. Norbait nitaz akordatu da, eta hori eskertu beharra daukat.

Kontatu didate zu beti prest zeundela edozertan laguntzeko?

Bai. Orain dela 20 urte baino gehiago hasi nintzen

behiekin herriko hainbat ekitalditan parte hartzen. San Migeletan, duela 10 bat urte izan zen ezkontza baten, ezkongaien arrioa neuk eraman nuen gurdian. Orduetik hona makina bat antzerki eta komeriatan ibilitakoa naiz.

Gustukoen, zein?

Olentzero gurdi gainean eramatea, duda barik. Umeen poza ikustea oso polita izaten da. Gainera, inoiz ez dut arazorik izan.

Urte askoan Olentzerorekin ibili ostean, izango duzu kontatzeko moduko pasadizorik.

Akordatzen naiz behin samarrak –behien buruko estalkiak– falta nituela uztarrira lotzeko. Etxean nituenak zaharrak ziren eta nahiko itsusi zeuden. Horrela, berriak erosteko asmotan, Santamasetako feriara joan nintzen. Han ez nuen samarrik topatu, eta Gabon bezpera goizean Gasteizera joan nintzen, baina



han ere, zorterik ez. Egun berean, bazkalostean, Elgetara joan nintzen, eta han

itxita topatu nuen denda. Hurrengo, Antzuolara joan nintzen eta han gizon batek

“Horrelako gauzak ez zaizkit askorik gustatzen”

“Olentzero gurdi gainean eramatea da politena”

“Orain, nire ondorengoa aurkitzeko garaia da”

Ordiziara joateko esan zidan. Ordizian, aldiz, jaiak ziren eta tratante batzuek samarrak Tolosan aurkituko nituela esan zidaten. Gogoratzen dut justu-justu heldu nintzela, Tolosatik

bueltan, Olentzerorekin neukan hitzordura.

Gogoratzen duzu gurdian eraman zenuen lehenengo Olentzero?

Bai, Alberto Etxebarria izan zen. Orduan, niregana Mari Jesus Txintxurreta etorri zen laguntza eske.

Horrelakoak egin eta gero, ezin ukatu ondo merezitako omenaldia jasoko duzunik.

Jainkoari eskerrak eman behar dizkiot 20 urte luzetan horrelako lanak egiten utzi didalako. Nik oso pozik egin ditut guztiak.

Iazko Gabonetan, ez zintugun ikusi Olentzerorekin.

Behiak zahartu zaizkit, eta ni ere ez nago gazte-gazte. Orain, nire ondorengoa topatzeko garaia da.

Zure behiek ere lan handia egin dute. Zeintzuk izan dira azkenekoz ibili dituzunak?

Azkenak Perla eta Txuri izan dira.



Aretxabaleta okindegia



Ondo ibili
San Migeletan!

Basabe 2. Tel. 943 77 00 81
Loramendi 6. Tel. 943 77 17 19





Aretxabaletako Udalak San Migel jai zoriontsuak opa dizkizue aretxabaletar guztioi.



DANTZA SAIOA BEINKE-LORAMENDI DANTZA ZAPATU ARRATSALDEAN HERRIKO PLAZAN

Beinke-Loramendi dantzak elkartuko ditu herriko dantzariak

Azken entseguak egin ostean, herritarrak gertu daude zapatu ilunkaran Beinke-Loramendi dantza egiteko

AMAGOIA LASAGABASTER

Zortzi urte beteko ditu aurten Beinke-Loramendi dantzak. Urte horietan guztietan askok egin dute dantza hori. Baina, funtsean, dantzaren esanahia ez da ezertan aldatu.

Dagoeneko ohitura sendo bihurtu da San Migel jaietan Beinke-Loramendi izeneko dantza egitea. Orain dela zortzi urte, 1994an, egin zuten aurreneko dantza, musika eta kantua uztartzen dituen ekitaldia. Ordutik hona, urtero, hutsik egin barik, berrogeita hamar herritar inguruk egiten dute Beinke Euskara Elkartearen eta Loramendi Ikas-

tolaren arteko batura ordezkatzeko duen dantza. Loramendi Ikastola eta Beinke Euskara Elkarteak 1994an batu ziren, eta Loramendi Kultura Elkarteak sortu zuten. Gerora, kultura elkarte zena Loramendi Euskara Elkarte bilakatu da.

DANTZA, MUSIKA ETA HITZA Beinke-Loramendi dantza Loramendi dantza taldeak asmatu zuen. Baina ordu-rako, oinarria, hau da, musika, egina zegoen.

Musikaren egilea Jose Ramon Bitoria irakasle arrasatearra izan zen. Hitzak idazten, berriz, hiru mutil gazte ibili ziren: Jon Iñaki Izartzelaia eta Jon eta Aitor Sarasua anaiak. Denen lana uztartuta sortu zen San Migeletan egiten duten dantza.



Herritar ugari hartzen dute parte Beinke-Loramendi dantzan, eta beste asko begira egoten dira.

Kantua

- 1. Loramendi ikastola:** Gerra ostian sasoi baltza hizkuntziak be giro latza, ikastolekin sortu gauen esperantza.
- 2. Beinke:** Eta heldu da gure aukera, barritu dogu gogo bera, geuk daroiagu gure lehena, etorkizunera.
- 3. Loramendi ikastola:** Ikastolien ahalegina, euskaraz bizitzeko grina kalia zabalduaz eskolan egina.
- 4. Beinke:** Aurrea goiaz ez gaz geldi elkarte txiki bihotza haundi Mendixa barriz loratu arte ekin Loramendi.

Jar zaitez profesional
espezializatuen esku.

Zure osasuna gure ardura da.

ERREHABILITAZIO ETA MASAJE
ZENTRUA

ekin
fisioterapiu zentrua



ZERBITZUAK:

- ERREHABILITAZIOA
- MASAJE TERAPEUTIKO ETA KIROL MASAJEA
- AKUPUNTURA
- OSTEOPATIA
- ELEKTROTERRAPIA - ULTRASOINUAK
- DRENAJE LINFATIKOA ESKUZ
- GIHAR INDARTZEA
- PODOLOGIA



Partikularrekin eta seguru
etxeekin lan egiten dugu:
(Lagun Aro, Adeslas, Mapfre,
etab.)

KIROLA HERRI KIROLAK ETA SAN MIGELETAKO TXIRRINDULARI PROBA

Domeka goizean kirola izango da nagusi

Domekan, kirolarekin, musika ekitaldiarekin eta umeendako jolasekin esango diote agur festari

MAGOIA LASAGABASTER

Zapatuko parrandaren ondoren, zer hobeto kirol pixka bat baino? Horixe era pentsatu du Jai batzordeak, eta, azken urteotan ginen ohi duen moduan, domeka goiza kirolari eskainiko dio; hain zuzen ere, herri kirol eta txirrindularitzari. 10:00etan hasi-

ko da lehenengo txirrindularitza proba eta 16:00etan korrituko dute azkena. Tartean, baina, izango da bestelako txapelketarik ere.


X. SAN MIGEL MUSTXAPELKETA Arratsaldean, 16:30ean, San Migeletako X. Mus Txapelketa jokatu da plazan. Bitartean, umeek gaztelu puzgarriak izango dituzte Iturrigorri frontoian.



Harri-jasotzaile bi eta lau aizkolari herriko plazan

Ziriakok aurkeztutako herri kirol erakustaldia 13:00etan hasiko da herriko plazan. Ordurako, bost kirolari gertu izango dira Pentaklon proba egiteko.

Harri-jasotze lanetan Juan Jose Unanue Goenatxo eta Elozukorta ibiliko dira. Aizkora lanetan, berriz, lau gizonek egingo dute erakustaldia: Hernesto Espeleta *Bihurri-k*, Nemesio Arregik, Jose Ignacio Floresek eta Jose Mari Esnaolak. Jose Ignaciok, aizkoraz gain, gurdia-ekin ere neurtu beharko ditu indarrak. Esnaolak, berriz, motozerra izango du lanabes.



Txirrindulari gazteendako III. Udazkeneko Criteriuma

Aurten, hirugarren aldia izango da San Migeletan gazteen mailako txirrindularitza lasterketa egiten dutela. UDAko Txirrindularitza Sailak eta Gipuzkoako Txirrindulari Elkarteak, beste behin, lan handia egin dute domekako lasterketa antolatzeke.

Udazkeneko Criteriumean proba bi izango dituzte: lehena 10:00etan hasiko da, Durana kalean, eta 11:30ean bukatuko da, Mendiolan; gero, arratsalde partean, goizeko lasterketan sailkatutako 21 txirrindularik erlojukontrako proba izango dute.

Aitzorrotz elektronikak
Alboka gazte moda
Angelines autozerbitzua
Aretxabaleta iturgintza
Asensio jantzi denda
Begiondo optika
Errasti kioskoa
Errekabarren fruta denda
Etxabe harategia
Farma bizi parafarmazia
Gemes edertze aretoa
Gertu janari prestatuak
Haurrak umeen moda
Herrasti akeita etxea
Ibarra estankoa
Iber loteria
Imanol janari denda
Iriarte umeen denda
Irudi ileapaindegia
Jauregi okindegia
Jon harategia
Josu harategia
L-10 ileapaindegia
Larrad ileapaindegia
Lasai masajeak
Leibar arraindegia
Leintz drogeria
Leniz liburutegia
Mari Karmen oinetakoak
Maritxu mertzeria
Martin erlojudenda
Miren Zuriñe bitxitegia
Nerian loradenda
Txilarra dietetika
Xume oihal denda
Zainduz osasuna/fitnessa
Zare artegintza
Zubia oinetakoak



UJOKO HERRIARITZA
EUSKAL LEHIAKETA
ERAKUNTZA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA
COMERCIO Y TURISMO

SAN MIGEL

Aretxarte: Kurtzebarriko jolaslekuko gaztelu puzgarriaren babesle

JAI

Bertan egotea bezala!

San Migeletako saio bereziak GOITBn

XELEBERRI

- Martitzena, urriak 1, 20:30ean
- Eguaztena, urriak 2, 14:00etan eta 20:30ean
- Errepikapena asteburuan



ONDO
PASAU
JAIXETANI!

KiXkur
ILEAPAINDEGIA


Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79
ARETXABALETA

ORAIN...
SOLARIUM
BERTIKALA

MUSIKA DOMEKAN, KEPA JUNKERAK KONTZERTUA ESKAINIKO DU HERRIKO PLAZAN

Kepa Junkerak emango dio festari amaiera

Akordeoiaren maisuak, Kepa Junkerak, domeka ilunkaran emango du kontzertua plazan



Kepa Junkerak, bere taldearekin, herriko plazan jarri duten agertoki erraldoian emango du kontzertua.

ARGAZKI PRESS

AMAGOIA LASAGABASTER

Ez du Grammy saririk irabazi, baina aretxabaletarrei horrek bost axola. Domeka ilunkaran herritar guztiak plazan elkartuko dira, Kepa Junkera bilbotarrak akordeoiaren hauspoari zelan eragiten dion ikusteko.

Aitonari esker eman zituen Kepa Junkerak lehen urratsak musikan. Bilbon jaiotako gazteak azkar erakutsi zuen eskusoinua jotzen aparteko abilezia zuela. Hala ere, Kepak urrunago iritsi gura zuen, eta Euskal Herrian horren tradizio handia duen musika tresnari bestelako doinuak ateratzen hasi zitzaion.

Horrela, Kepak argi agertu zuen musika egiteko estilo propioa zuela.

'MAREN', AZKEN DISKOA
Kepa Junkera Oskorriekin hasi zen musikan;

Oskorriekin batera hasi zenean, adituek esan zuten Kepak 'deabruen' moduan jotzen zuela akordeoia

orduan, adituek esan zuten akordeoia *deabruen* moduan jotzen zuen mutila zela Kepa. Gerora, beste hainbat proiektutan murgildu da. Bakarlari gisa, esaterako, atzerrian ere sekulako ospea lortu du. Carlos Nuñez, The Chieftains, Dulce Pontes... Musikari askok ezagutu dute Junkerak *infernuko* hauspoari eragiteko duen abilezia.

Domekan emango du kontzertua Aretxabaletan, 20:30ean. Taula gainean, besteak beste, bere diskoetako kanturik ezagunenak joko ditu.

Maren da Keparen azken diskoa; disko horretan mundu zabaleko hainbat kultura batu ditu soinu bakarrean. Inspirazio gisa, baina, gertuko paisaia erabili du, Urdaibaiko erre-serba, hain zuzen ere.

Kontzertuan, Kepa Junkerarekin batera, Angel Untzu, Julio Andrade, Harkaitz Martínez, Igor Otxoa eta Blas Fernández musikariak arituko dira. Horiek guztiak kontzertu atsegin bezain erakargarria eskainiko dute. Kepa Junkeraren emanaldiak horrelakoxeak izan ohi dira: inprobisaziorako leiho irekiak.

Aretz

taberna



.Gosariak

.Pintxoak

.Plater konbinatuak

.Otartekoak

.Pizzak

.Hanburgesak

.Sandwichak

.Oilasko erreak

.Kazuelatxoak

GORA SAN MIGELAK ETA ARETXABALETARROK!

ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera

9:00etatik zabalik

Astebukaeretan

11:00etatik aurrera

Markole, 5 behea Tel.: 943 79 14 67 ARETXABALETA

ERRETRATUZHARRA

Antzinako
ezkontzarekin
hasi ziren jaiak

Gaur egun ezagutzen ditugun San Migel jaiak ez dute horren historia zaharra; egia esan, aurten, San Migel jaien hamabigarren aldia izango da.

1990eko irailaren 29an, antzinako ezkontza antzestu eta ospatu zuten herrian. Horixe izan zen, hain zuzen ere, jaien hasiera. Ordura arte, herrian Andramari jaiak izaten ziren garrantzitsuenak. Hala ere, Andramari-xetan gero eta jende gutxiagok hartzen zuten parte eta lagun koadrila batzuek zer edo zer egin beharra zegoela erabaki zuten. Gauzak horrela, kultura teknikariarena jo, eta antzinako euskal festetako giroa berreskuratzeko jaiak egitea pentsatu zuten.

Esan bezala, lehenengo urtean lehenagoko ezkontza bat antzestu zuten herritarrek. Denera, 50 laguntik gora ibili ziren festa antolatzeke lanetan. Ezkontzaren antzerkian, aldiz, ehun eta berrogeita hamar herritarrek hartu zuten parte.

Orduko kultura teknikariak, Ima Migelek, gogoan du festa aurrera



ateratzeko egindako lan guztia. "Egileor baserritik idiak eta gurdia ekarri, jantzi aproposak lortu, arrioa osatu... Ustez dena gertu geneukan eta, hara!, goizean trikitilaririk barik geundela konturatu ginen. Azkenean, handik edo hemendik, horiek ere ekarri genituen arratsalderako".

Arratsaldeko zazpitan irten ziren kalejiran antzerkiko lagun guztiak. Egun osoan euria egin zuen, baina antzerkia egin beharreko tartean eguzkia irten zela gogoratzen du Imak. Argazkian, Jose Antonio Zubizarreta *Taulero* (abadea), Josu Otxoa eta Ekaitz Filarmendi (elizmutilak) eta

Asier Cobos (artzaina). Atzeko aldean, berriz, Mari Nati Olabe (amabitxia) eta Isidro Serrano (senargaia) ageri dira. Emaztegaia Amaia García izan zen.

Argazkia: Mari Nati Olabe



**Egun zein gaba
euskara ez da traba!
Ondo pasau
San Migelak!**



**BARRUKO ETA KANPOKO LORATEGIAK ZAINDU ETA SORTZEN DITUGU
UREZTATZE-SISTEMA AUTOMATIKOAK INSTALATZEN DITUGU**

Basabe poligonoa D-2-1. T/F: 943 79 78 45 / 616 96 57 98. 117 posta kutxa ARETXABALETA

Ondo ibili San Migeletan!

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



ATE IRRISTAGARRIAK
HORMAN SARTUTA:
**LEKU GUZTIA
APROBETXATZEKO**



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa




AZKARATE
AROSZTEGIA

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 01 24

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



Ze barri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko irailaren 27a / 94. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebbarri@goiena.com



Hirurogeita bost urtetik gorako gehienek hartzen dute gripearen kontrako txertoa Eskoriatzan.

Gripearen kontrako txertoa herritar askok hartu dute

AINTZANE GARDOKI

Irailaren 16an hasi eta urriaren 31 arte hartu ahal izango da gripearen kontrako txertoa. 65 urtetik gorakoei eta, nahiz eta gazteago izan, diabetikoa edo gaixotasun kronikoren bat duten guztiei dago zuzenduta kanpaina hori. Askok hartu dute dagoeneko.

Irailaren 16an hasi ziren txertoa jartzen Eskoriatzako osasun etxean. 13:30etik 14:30era bitartean joan daiteke txertoa hartzera, "baina kontsultara tentsioa hartzera edo errezetaren baten bila datorrenari ere, nahi izanez gero, txertoa jartzen diogu", esan digu Lurdes Etxebarria erizainak. Denera, 200 txerto baino gehiago jarri dituzte aste eta erdian. "65 urtetik gorakoak izan dira etorri diren gehienak", gaineratu digu Lurdesek.

Urte mordoxka bat bada, irail amaiera eta urriaren bueltan, Osakidetza gripearen kontrako kanpaina hau egiten hasi zela. "Hasieratik oso harrera ona izan

duela esango nuke", esan digu Lurdesek. Hark ez du zalantzarik. Gaixo kronikoei eta 65 urtetik gorakoei txertoa jartzearen aldekoa da. "Txertoa hartu edo ez hartu, norberak egin beharreko aukera da. Gainera, txertoa jartzeak ez du esan nahi hartzen duten guztien artean inork ez duela ezer harrapatuko; katarroren bat hartuko dute batzuek, beste zerbait ere bai, agian, beste batzuek, baina txertoa hartu dutenek motelagoa harrapatuko dutela, seguru. Gainera, gaixoren bat hartuz gero, konplikazio eta arazo gutxiago izango ditugu txertoa hartu badugu", azaldu digu erizainak.

Gripearen kontrako txertoak beste txerto batzuek sortzen dituzten bigarren mailako efektu antze-

rakoak sortzen ditu: gorritasuna eta gogortasuna ziztada hartutako inguruan, kalentura, eta, orokorrean, ondoeza. "Ez dago zertan efektu horiek sentitu beharrik. Askok ez dute izaten. Eta izaten dituztenei, normalean, egun bat edo bitan desagertzen zaizkie", argitu digu Lurdes Etxebarriak.

AUZOZ AUZO ETA ETXEZ ETXE

Aurreko urteotan moduan, aurten ere osasun etxeko erizain bat eta haren laguntzailea elizateetara joango dira auzokideen artean txertoa jartzeko. Apotzagan joan den astelehenean izan ziren, Bolibarren irailaren 30ean izango dira, Marinen urriaren 1ean eta Mendiolan urriaren 7an. Guztietan ere 11:00etan jarriko dituzte txertoak.

Gellaoko auzokideek, berriz, Aretxabaletako osasun etxera jo beharko dute txertoa hartzera. Txertoa ipintzera joateko arazoren bat duenak erizainarekin harremanetan jarri eta etxera joango zaizkio txertoa jartzera.

Datorren urriaren 31 bitartean dago gripearen kontrako txertoa hartzeko aukera.

*Datorren urriaren
31 bitartean egongo
da gripearen
kontrako txertoa
hartzeko aukera*



Erditze aurreko eta osteko gimnasia

Umea izateko edo eduki berri duten emakumeendako gimnasia eskolak ematen hasi dira herrian. Orain arte Aretxabaletan ematen zituzyten era horretako gimnasiak, eta har-joan behar izaten ziren herriko emakumeak. Orain, berriz, 2 bat emakume batzen hasi dira Isabel Gardia emaginaren agintuetara erditze aurreko eta osteko gimnasiak egiteko.



Atxorrotxendako sari ordaina

San Migelak Aretxabaletan ere badirela-eta, Almengo ikasleek eurek egin eta batutako produktuak jarriko dituzte salga zintzilikariak, bonboiak, marmeladak, menbriloak, kamari la eta aranak, besteak beste. DBHko 4. mailako ikasle bidaia egiteko erabiliko dute jasotako dirua, baina gainera koek batzen duten dirua Hiruatz GKeri emango diote.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
RENFE (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

SAN MIGELAK APOTZAGAN

ZAPATUA

12:30 Meza nagusia.
Arrasaldean, Mus Txapelketa.
21:00 Bertso afaria, Amets Arzallus eta Sustrai Colina bertsolariekin.

DOMEKA

13:00 Meza nagusia.
Ondoren, luncha Auzoetxe elkartearen, nahi duten guztiendako. Beloki soinu jotzailea izango da giroa alaitzen.
Eguerdian, Umeen Marrazki Lehiaketa egingo da.

AXTROKIRENAGENDA

UDAZKEN KULTURALA

Axtrokik, Udazken Kulturalako ekintzak antolatzeko, dei egin nahi die bazkideei eta ideiak dituzten eta laguntzeko prest dauden guztiei. Interesatuok, deitu 943 71 54 34 zenbakira.

JOSE RAMON BEITIA 'TXARRUALDE' / APOTZAGAKO AUZO-ALKATEA

“Mondragoetik Gatzagaraino egin duten baino auzolan gehiago egin dugu guk”

AINTZANE GARDOKI

Lehenengoz 32 urterekin hartu zuen auzo-alkatetza. 56 bete ditu eta oraindik ere hura da alkate. Bi legealdi hasieran, beste bitan atsenden hartu, eta azkeneko bietan aukeratu dute alkate berriro. San Migelak direla-eta harengana jo dugu.

San Migelak badatoz aurten ere.

Dagoeneko ez dira lehengo jaiak, baina ondo pasatuko dugu, gogorik ez zaigu falta-eta. Badakizue, Apotzaga hemen dago, eta gura duena etor dadila, esku zabal hartuko dugu-eta.

Auzo txikia bai, baina bizia, bai lehen eta bai orain, ezta?

Ahalegintzen gara bizirik eusten. Auzoaren alde lan handia egindakoa da apotzagarra. Norbaitzuek handikeria bezala hartuko didate, baina Mondragoetik Gatzagaraino egin duen baino auzolan handiagoa egin dugu guk Apotzagan bakarrik.

Auzolana apotzagarrak beti barruan izan duen zerbait da?

Barru-barruan dugun zerbait izango da. Lehen, Apotzaga lokatzara hutsa besterik ez zen. Mutikotan, gogoratzen dut zelan auzotarrak auzolanen aritzeko batzen ziren. Auzoa gaur egun izatera heldu dena auzolanari esker da. Gutxituko da, horretaz ere ziur gaude, gazteek gure aldean gutxiago egiten dute-eta.



A.G.

“Apotzaga hemen dago, eta gura duena etor dadila, esku zabal hartuko dugu-eta”

“Ez, datorren maiatzetik aurrera beste batzuek hartuko dute errelebu”

Zertzuk egin dituzue?

Batzuk aipatzearen, auzoan argindarra sartu, ur berriak hartzeko lanak egin, bideak konpondu eta laster helduko zaigun gasa ere sartu dugu. Auzoetxe elkarte egin zenean ere auzotarren lana ezinbestekoa izan zen.

Edozein herrik ez du horrelako elkarterik, gero.

Sei bat lagunek pentsatu genuen auzoak elkarte behar zuela. 70 bazkideekin altxatu genuen. Auzotarrendako ederra izango zen lokala geneukan buruan. Ederra eta handia egin genuen. Baina horrek mantentze-lan handia eskatzen du, eta orain, 110 bazkide gara, hortxe jarri genuen-eta muga. Jaio zeneko izpiritua galteza ekarri dio, agian, horrek. Ez daukagu ezer kanpoko bazkideen kontra, baina txikiagoa egin izan bagenu, auzotarren artean bakarrik edukitzeko modukoa izango zen elkarte eta giroa ere auzokoagoa izango zen. Hilero 1.300 bazkari eta afaritik gora izaten dira.

Zelakoa da hartu-eman beste udalekin?

Oso ona. Herriko Udalak auzo-ekiko kontzientzia handiarekin jokutzen du. Eta beste auzo-alkateekin? Elkarrekin lan egiten dugu, denon interesak elkarrekin defenditzen ditugu eta afari-askari ederrak ere egiten ditugu.

Maiatzetik aurrera alkate izaten jarraituko duzu?

Ez, dagoeneko beste batzuei errelebu emateko ordua heldu da.

LABUR

Informaziorako eta Komunikaziorako Teknologia Formazioan masterra HUHEZIn

Irakaskuntzako profesionalek ikasgelan ikus-entzunezko baliabideak eta multimediak erabiltzea du helburu master horrek. Enpresan eta bestelako erakundeetan ari diren profesionalek ere izango dute masterrean parte hartzeko aukera. Masterra Autoformazio eta Teleformazio

eran antolatuta dago. Eskola presentziala 45 ordukoa izango da; autoformazioa, 360 ordukoa; tele-toretza 140 ordukoa; eta proiektu aplikatua 75 ordukoa. Teknologia eta metodologia berri horrekin, lanean edo ikasten ari direnek etxetik ikasketa horiek egiteko aukera izango dute.

Osakidetzaren Osasun Zentro berria egiteko hasi dira lehenengo urratsak ematen

Lanak egiten hasi ez badira ere oraindik, Gorosarri Plazan egingo den Osasun Zentro berrian, Osakidetzako aparejadoreak eta arkitektoak hartu dituzte beharrezko datuak. Abendurako proiektua amaitu, eta hiru hilabeteren buruan lanak hasteko moduan izango direla esan digu

Gabriel Elorriagak, Osasun Zentroko arduradunak. Lanak, 2003. urte amaierarako edo 2004. hasierarako amaitzea egotea espero du Elorriagak. 450 metro karratu izango ditu guztira zentro berriak. Gero, Gorosarri plazara pasatuko dira egungo Osasun Zentroko zerbitzu guztiak.



- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 31 29 Eskoriatza 20540



Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

MARI
TERE

ILEAPAINDEGIA

Dorleta auzoa,
15. poligonoa, 6-ezk.
ESKORIATZA
943 71 40 19

TOKI
ALAI
TABERNA

Karajilloetan
espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA



Aurrerantzean, bi hilean behingo batzarrak herriz herri egingo dituzte erretiratuek.

Ibarreko erretiratuek bilera egin dute Gatzagan

AINZANE GARDOKI

Ibarrean dauden 10 erretiratu etxeetako batzordekideek bi hilean behin egingen dituzten batzarrak Arrasateko Abaroa egoitzan egin dituzte azkeneko bi urteotan. Orain, lehenago egiten zuten moduan, batzar horiek herriz herri egitea erabaki dute.

"Ibarren 10 erretiratu etxe daude. Lehenago, ibarreko erretiratuok batzen hasi ginenean, urtean 10 batzar izaten genituen, eta etxe bakoitzean bat egiten genuen, hau da, herriz herri egiten genituen batzarrok", esan digu Gatzagako erretiratuen batzordekide Juan Mari Makazaga Pekeño-k. "Azkeneko bi urteotan, berriz, batzarrak Arrasaten egin ditugu, baina azkeneko batzarrean pentsatu genuen hartu-emanak berriro ere herriz herri egitea, eta Gatzagan lehenengo egitea", gaineratu digu Pekeño-k.

Bakoitza zertan ari den eta gauzak zelan egiten dituen ikusi, bata bestearengandik ahal dena ikasi eta elkarri laguntzea dute hel-

buru, besteak beste, batzar horiek.

Gatzagan egin duten batzarra, aldiz, ezohikoa izan da, Gipuzkoako Jubilatuen eta Pentsionisten Elkarteak (GJPE) deitutako batzarra izan da-eta. Bergarako eta Antzuolako ordezkariak falta izan baziren ere, beste etxeetako ordezkariak -etxe bakoitzetik bi batzordekide- elkartu ziren herrian. Ibarreko ordezkariak gain, Donostiako GJPEko presidentea eta diruzaina ere izan ziren.

Mahai gainean puntu nagusi bat: Gipuzkoako Jubilatuen eta Pentsionisten Elkarteari probintziako erretiratu bakoitzak ordaintzen dion kuota. Horrek dituen abantaila guztien berri ematera etorri ziren donostiarrak. "Erretiratu elkarteetatik, erretiratu

bakoitzak 60 euro-zentimo ordaintzen dizkio, edo ez, Gipuzkoako elkarte horri. "Gatzagakook ordaintzen dugu, eta ibarreko beste askok ere bai. Ez da dirua, baina jakin gura dugu diru horrekin zer egiten den", azaldu digu Pekeño-k. "Gipuzkoako elkarte erretiratuon sindikatu bezala ulertzen da, guztion eskubideak defendatu eta beharrezko gestioetan laguntzen digun elkarte bezala. Kultura ekitaldi asko daude nagusiendako, garraioetan deskontuak ere bai, hori ez dugu ukatuko; baina Donostiaraino joango gara kontzertu bat entzutera? Edo autobusa hartuko dugu merkeagoa ateratzen zaigula-eta? Gatzagan ez daukagu autobusik baina!", jarraitu du Pekeño-k. Hark esan digunez, ibarreko ordezkari bat baino gehiago, eta donostiarrak, zer esanik ez, harriz galditu ziren Gatzagan garraibiderik ez daukatela jakin zutenean. Ez zuten ezer garbirik atera batzarretik. Ibarreko elkarte guztiek kuota ordaindu edo ez erabakitzeko, batzarra egingo dute urriaren 10ean. Hori bai, batzarraren ostean ez zen mokadurik falta izan.

*"Ekitaldi ugari?
Deskontuak
garraibideetan?
Eduki ere ez
daukagu baina!"*

LABUR

Abuztuan hasitako zinema emanaldiak jarraipena izango du datozen asteotan

Mikel González eta Iñaki San Pedro zinemazale gatzagarrek, abuztua ezker, zapatu arratsaldeetan herritar guztiendako film bi jarri dituzte Gatz fabrikako pantaila handian. Txikiendako filmak arratsaldeko lauretan izan dira orain arte, eta nagusiei eskainitakoak, berriz, 20:00etan. Arrakastatsua izan da bi herritarrok izandako ekimena. Horregatik, datozen asteotan ere jarraipena izango ei du ekimen horrek. Dena dela, eta oraindik ezer erabaki ez badute ere, beharbada, zapatuan beharrezko domekan emango dituzte filmak.

Hautsontzia poltsan hartuta kalera irteten diren herritarrek Gatzagan

Kalean, eta, batez ere, sozietate aurrealdean eta beheko plazan, izaten diren zigarro mutxikin eta pipa azalak atentzioa emanda, erretzaileak diren herriko bi emakumek kalera hautsontziarekin ateratzea erabaki zuten. Lehenago sortzen zuten zikinaz orain kontzienteago ei dira. "Egunak joan, egunak etorri, leku berean gelditzen gara umeekin, eta guk geuk sortzen genuen zikinarekin nazkatuta hartu genuen erabakia", diote. Orain, kontzientzia eta plaza bera garbiago ikusita, harro daude duela hilabete hartutako erabakiarekin.



Ikasturte hasierako festa eskolan

Bi eta sei urte arteko 10 ume ari dira herriko eskolan. Aurten, gainera, irakasle berriak dituzte: Harkaitz eta Jaione. Ezeizako Guraso Elkarteak antolatuta eta Gatzagako gurasoen laguntzarekin, Eskoriatzako ikastetxeko ikasturte hasierako jaia egin zuten herrian. Gatz Museoa bisitatu eta herriko eskola ezagutzeko aukera izan zuten herrian izandako guztiek. Txokolataz bapto eginda amaitu zuten batek baino gehiagok. Herriko eta kanpoko umeek gogotik disfrutatu zuten. Jende ugari eta giro polita, berba gutxitan esanda. /A.G.

aroztegia
Leintz

Aingeruguardako ibilbidea
Tel.: 943 71 49 36
ESKORIATZA (Gipuzkoa)

- Sukalde altzariak egiten ditugu
- Armairu enpotratuak
- Neurri bereziak

AZKOAGA
ESTANKOA

Zure
Zerbitzura

Santa Ana
GOZOTEGIA



Santa Ana 7
ESKORIATZA
Tel. 943 71 52 36



Amaral, S.L.

ERAIKUNTZAK ETA ZAHARBERRITZEKO LANAK

URBANIZAZIOAK ETA OBRA PUBLIKOAK

PROIEKTUAK ETA OBRA ZUZENDARITZA

Zorionak, eta ondo ibili denok San Migeletan!

CONSTRUCCIONES AMARAL DE SOUSA, S.L.
Basabe poligonoa 20A, 4 pabilioia. Tel.: 943 77 07 06. Faxa: 943 71 18 05.
20550 ARETXABALETAKO (GIPUZKOA)
camaral@amaralekua.com · www.amaralekua.com

Mota guztietako gidatzeko
baimenak ateratzeko aukera.
LARRINGANEK.


Eskola teorikoko irakaslea.
LARRINGANEK.

Ordutegia, zure beharretara
egokitua.
LARRINGANEK.

Gogo pixka bat.
NORBERAK.



Bulego ordutegia:
10:00-13:00 eta 16:00-20:00
Basabe Poligonoa F-0-7
ARETXABALETAKO
Telefona: 943 79 64 50



Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!

Amets taberna



Taberna eta kafetegia
Iparragirre 4. 943 79 01 29

**Dorleta
taberna**

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
ARETXABAleta
Tel. 943 79 94 15

**GUREA
TABERNA**

Eguneko menuak • Plater konbinatuak

Durana kalea. Telefonoa 943 79 20 64

Taberna Berri



Durana 26, ARETXABAleta. 943 79 20 67

**URBALTZ
TABERNA**



Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 943 79 79 79
ARETXABAleta

**ZARAIA
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan
MANTEKA ANAIK

Araba Ibilbidea 20. Tel.: 943 79 88 95. Aretxabaleta

HIRUSTA JATETXEA

Zatoz gure sukaldean ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. : 943 79 06 57

Baster-Alde jatetxea



**Sasoiko
jakiak giro
onenean**

Galartza auzoa, Aretxabaleta
943 79 24 58

Mitartegorai



Areantza auzoa, Aretxabaleta
943 79 17 51



AZKENA taberna

Solohaundi 8 Aretxabaleta. 943 79 74 57

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25 ESKORIATZA

**ALDATZ
Taberna**

Musika ona entzun dezazun

Tel.: 943 71 41 71
ESKORIATZA

Mirentxu



Hidalga 10
Eskoriatza. 943 71 41 67

**COMPOSTELA
Taberna**

Olagarro espezialitatea

San Pedro 12
ESKORIATZA
943 71 48 70

**NAIRA
Taberna**

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71